

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

341n. zenbakia

2008 iraila



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - Teléfono 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

AITAREN TXAPELA

1.

Txapela beltza degu
guk geure ikurra,
euskal nortasunaren
agerpen xamurra.
Estali dezu eguzki
ta neguko elurra,
zerana zeralako,
batzuren zimurra.

2.

Txapelari begira,
aitaren txapela,
ta nik sentipen batez,
bertsotan onela:
Eun urtetik gora
mundura ziñela,
pisturik dirau nigan,
gaur, zure kandela.

3.

Kaixo aita Luzio,
nire gogo babes,
ia berrogei urtez
elkar ikusi ez.
Fedeak urbilduta,
espiritu bidez,
gaur itz egingo dizut
biotz atseginez.

4.

Bertsotan jardun zinen
zu, amaika bider!
orren zaletasuna
nigan zuri esker.
Badakit ez naizela
lan orretan ezer,
baina goibeltasuna
biurtzen dit eder.

5.

Arantz joana zera
Jaungoikoak naita,
geroztik nik ere gaur,
urteak gaiñezka.
Nola aaztuko zaitut?
O! Zu nire aita,
zure espiritua
beti nigan bait da.

6.

Amaierarik ez da
zu zauden orretan,
Jaungoikoa aurrean,
maitasuna bertan.
Golgotako odola
maitasun ori zan,
orren bearra bada
gure bazterretan.

7.

Zure txapel ederra,
nik daukat eskuan,
eta ori jazteko
dago nire asmuan.
Leengoa eta oraiña
loturik buruan;
euskera gordeko det,
ta ez ezkutuan.

8.

Nekazari, arrantzale,
bizibide sari,
itsasoa bidean,
baserria kabi.
Baita fabrika aozpeztuz
zure kemenari,
eta dena eskaiñiz
zuk familiari.

9.

Agur, aita on maite,
ama urbil dezu,
berriz uztarturik or
Aia ta Arbizu.
Ortik onantz begira
otoitz bat egizu,
nik eskertuko dizut,
zuk ondo dakizu.



Txapela jaztera noa:

Leen aitarena,
orain semearena;
eta aren espiritu santua
Goian bego.
AMEN.

Joxemari Murua-k
Donostia-n 2008- Ekaiñak 13
San Antonio egunez.

AFRIKA'KO IPUIN/ALEGIAK

SARRERA

Afrika'ko oiturea da gabetan etxe batzutan alegiak edo ipuiñak edestea, eta ez poza emoteko, batez be irakasteko izaten dira.

Beti gaba illunduta gero, agure zar bat izaten da kontalari.

Alegi oneik euren egia Daule eta egi ori azpian erakusten dabenak abereak dira, euren jokabideakaz eta beti Daule euren irakatsia.

Gaur gabetan telebista ikusten da, baiña a neta Orduña ez egoan olakorik, Afrika'ko jakituria kontalari zarrak zabaltzen eban, gabea eta etxean, auzoak batuta.

Afrika'ko alegi txorta bat eskiñiko dogu emen irakurleentzat.

1.- AKOLI ETA IRU AOLKUAK

Gizon aberats batek, ilteko egoala, seme bakarrari deitu eta esan eutson:

– Nire ondasun guztiak izten dautzudaz. Erabili egizuz ondo eta orretarako iru aolku emongo dautzudaz:

- 1.– Alkolari gorrotoa izan.
- 2.– Isilpeko ezer esan mirabeari.
- 3.– Ez izan adiskide erregeagaz, onen semeagaz baiño.

Alkoli zan semearen izena eta zin egin eutson aitari iru aolkuak beteko ebazala.

Il zan aita eta beste bagerik aberastu zan semea. Onek bere artean esan eban: Iru aolkuak beteko dodaz eta orrean aurkakoa be beti egingo dot. Ia zeñek daukon indar gehiago.,

Nire gelan beti egongo da ura daukan errada bat eta ardaa daukan beste bat.

Asi zan erregearen etxera joaten eta onen semea zan Aru'ren lagun be egin zan. Onegaz ebillan beti, baiña erregeak be deitzen eutsan batzutan.

Akoli zorionsu bizi zan eta ikusi eban aitaren aolkuak beti ez zirala onenak. Erregearen eta onen semearen lagun zan eta ardaa ugari edaten eban erradatik.

Baiña erregeak eizan aurkitutako gepardo bat eukan beti ondoan.

– Ez al dautso iñok ikutuko abere oneri! Olakoa urkatu egingo dot, semea ba'da be bai!

Bein baten Akoli'k erregearen emari esan eutson:

– Iru egun barru lenengo illargiaren jaia da. Egingo dautsagu erregeari izeka bat?

– Zer? esan eutson Aru'k.

– Gepardoa ostu eta gorde!

Esan eta egin. Erregea lo egoala, iruzurtu eben gepardoa eta gau illunean Akoli'ren etxera eroan eben.

Akoli'k ardaa edan eban ere mirabe bateri deitu eta esan eutson.

– Zaindu egizu gepardo jaiak igaro arte. Ez iñori esan gero! Il egingo zaitue ta!

Goiz-aldean oillarrak jo ebanean, erregearen deia entzun jakon deilariari:

– Entzun! Gepardoa ostu dauste! Lapurra naiz etxean daukana il egingo dot! Eun urrezko txanpon emongo dautsodaz lapurra nor dan agertzen daustanari. Erregeak diño!

Erritar guztiak ikaratu ziran!

Eguzkiak urten ebanean joan zan Akoli erregearen etxera, itxuraz saminduta. Eta esan eutson:

– Gepardoa ostu ei dautzue! Nok egin ete dau olako obena?

Semea be joan zan erregearena eta bardin.

Gepardoa eukenak larri egozan, urkatuak izango ete ziran.

Euren nagusiak emazteari agertu eutson eta onek esan eutson: – Zoaz erregeagana bereala eta esan dakizuna dana!

Joan zan erregeagana etan esan eutson:

– Errege Jauna! Nik ba dakit gepardoa non dagoan- eta dana azaldu eutson erregearen semea aitatu be egin bagerik.

Erregeak emon eutsozan eun urrezko txanponak eta Akoli baitzeko agindua emon eban:

– Gertatu soka lodi bat ori urkatzeko!

Etorri zan Akoli eta sokea ikusita esan eban:

– Zertarako dozue ori?

Akoli konturatu zan isilpekoa zabaldua egoala eta negar egin eban. Orduan erregearen semeak esan eban:

– Neu be onegaz batera ibilli naz eta baitu ta urkatu nagizue!

Au be lotu egin eben.

Erregea urkatzea ikusteko gertu egoan lagunakaz eta zurtz eginda geratu zan urkamendira bere semea eroiela ikusi ebanean eta esan eutson:

– Gaizto ori! Zu be nire aurka?

Semeak erantzun eban:

– Guk izeka egitea baiño ez gendun gura, baiña Akoli urkatu bear ba'da, ni be bai.

Ikusi eban erregeak izeka bat izan zala eta aske itzi ebazan.

Orduan ulertu eban Akoli'k aitaran aolkua: Isilpekoa iñori ez esateko, alkolik ez edateko eta Errege-semearen lagun izateko!

OLAZAR'tar Martin'ek

ADOAINGO AITA ESTEBAN DOATSUA

(1808-1880)-BIGARREN MENDEURRENA



Lan onen zergatia?. Fraide kaputxino au doatsu delako eta bear bada, laister sandu izendatuko dutelako. Euskalduna zelako. Eta On Marcelino Garde, Aren sorterrian ogeitamar urtez erretore izan zelako.

URRAUL GOITI, Iratí eta Saraitzu erreken artean dagoen bailara da Nafarroan. Bailara onek joan den mendeko asiera artan mila bíztanle omen zituen, gaur egun bitartean ez omen dira eunera iristen. Aizkurgik, adibidez ez du biztanlerik, eta ango paisaia oso latza da. Adoaingo errian bi familia bici dira egun.

Urtean zear euriak 900 litro metro karratueraño eltzen da. Neguak oso otzak eta udak eguzkitsuak dira. Nonbait oso gogorra zen bizitza toki orretan. Orain berreun urte Adoain zaion erri txikian, “Eneko” deuturiko etxean sortu zen Francisco Marcuello Zabalza. Ogei urte izan arte, antxe bizi izan zen nekazarizko lanetaan, gero Iruñeko Kaputxinoetan sartu arte.

Euskara ongi ezagutzen zuela jakina da, Arek berak kaputxino agintariei egindako idazki batean olaxe aitortzen zuen: “Ni oso ongi ezagutzen dut errialde au, euskara izkuntza mintzatzen dena, eta zein izan daiteke ortxe sermolari izateko izan dezaken gai oberena beraien izkuntza dakien pertsona bat baino... bere burua Nafarroako errialdetan lanean ikusi nai zueneko tenpretan”

Irurozki, Imirizaldu eta Zigako errietan apez egon zen, irurak euskalunak. 1.839 urtean joan zen Italira, Antxe ikasi zuen laugarren izkuntza, euskara, gaztelera, eta latinerara geituz. Gero sei errialde desberdiñetan egon zen misiolari. 1842 urtean bidali zuten Venezuelara eta

antxe egon zen “apure” indioekin, antxe zeuden XVIII mendeko bigarren zatitik aurrera Andaluziako kaputxinoek. Indio auek “achagua”, “yorure”, “otomano” eta “txirikoa” tributakoek ziren. Aita Estebanek garrantzi nabarmena ematen zion Venezuelan egondako denboreei, auxe idatzi zuen toki auri eta ango lekuei buruz. “Apure probintziak itxasoko nibelatik azpitik dagoenez, arras beroa da. Aren biztanlegoa ez da ogeitamar milara iristen...Ogeitabi parroki ditu eta denak bat ezik andaluziako kaputxinoek irekiak izan ziren 1770 eta 1820 urte tartean. Egun, ez dago zutik bat besterik”. Baina indioen buruzagiek bota zuten lurralde auetatik, auen eskubideak babesten zituelako. Emendik, Guatemala eta Salbadorrera joan zen.

1873 urtean itzuli zen Baionara eta andik Ustaritzera erretore. Garai orretakoak dira euskaraz idatzitako sermoiak, aita Ondarra kaputxinoak dioten bezala, lapurterazko euskalkian idatziak daude bere Urraulekoarekin nasturik.

Bigarren gerra karlistan gipuzkoako Lostaolan kapeillau ere egon zen.

Adoaingo Aita Esteban famatua izan zen bere garaian eta geroago ere Nafarroa osoan. Nabarmena ere Aren maitasuna Ama Birginarenganako. 1864 urtean, Amabirjiña Sortzez Garbiaren dogma izendatu zutenean egin zuen itzaldia arrigarria izan zen. Baina, denaren artean bere debozioa “Divina Pastora” delakoarenganako, onen ikurrakin ibili bait zen ameritar misioeten.

Xole Erbiti

TREBIÑO`TIK TXANGOLARI

Olazar`tar Martin`ek esan eustan: Trebiño ezagutzen dok ? Ez !! Orduan oster bat egin bear dogu, Euskaldun batek beren lurraldeko irudimenean ez leukelako euki bear alango jakin-gabetasunik.

Loraila`ren 30`erako (Barikua) ipini gendun eguna eta Martin`ek Meza Santua emon da gero 9`1/2`etan urten gendun Mungia`tik Trebiño`ra Barazar`etik zear.

10`k eta laurenetan eldu giñan Argantzon`eko (Km.333) errira eta gurdi- bideak guztiz aldatuta dagozan lez, argazki batzuk atarata Palazios`eko jatetxera joan giñan norabideakaz argitzeko.

menditsutasunagaitik eta Urizaar mendi kateari esker. Oso aberatza da ur-kontuan.

Beren uri-nagusiak Trebiño (trifiniun edo iru muga daukazena esan gure dauana) eta Argantzun Udal-erriak dira eta erri-kopuruan: Agelu, Axarte, Albaina, Añastro, Arana, Argote, Armentia, Askartza, Bajauri, Burgeta, Busto, Dordonitz, Dorono, Franko, Fuidio, Golemio, Imiruri, Ladrera, Laino, Marauri eta Mezantza`gaz osotzen da.

Lurraz: Garia, garagarra, lur-sagarra, lekadun landareak eta txerri-arbi edo udarbi`ak (remolacha) artzen



Palacios, km. 333.

Trebiño`ko lurraldeak ikusiaz batera, ortik aurrera ondo aztertu genduzan beren inguruak, leenengo baiña, goazan edestian zer aipatzen dan beragaitik ikustera eta nungo mugakin Kastilla-Leon mendean dagon kokatuta.

ERRI, ERREKA ETA BEREN LURRA`REN EMANKORTASUNAK:

Burgos`ko jaurkintzapean dago Araba`ko eskualde au, Iparraldetik Iruña ta Gazteiz; Ekialdean, Bernedo; Mendebalean goiko-erribera, beko-erribera, Aramiñon eta Beranturi; Egoaldean, Zanbrana, Urizaarra (Peñace-rada) eta Lagran`ek mugatuta.

Itsas-goian 621`eko metrukoa da eta zabaleran 221`57 km. Karratuak daukaz. Uda ibaia aldatzen dau Iparraldetik Egoalderuntz eta ez dauka ura`ren gabetasunik beren

dabez edertasun osoan, bai eta baratzean-be ortu-ari eder ta ugari.

Eta abere azkuntzan: Ardi, txarri, bei eta zaldiak ikusi genduzan.


EDESTIA: Trebiño eta inguruko erritxoaren agi-riak, X`n gizaldian agertzen dira leenengoz eta XI`n mendean, Nafarroa`ko erregearekin batera borrokatu ziran Gaztela`ko erregearen aurka.

1.160`an Lopez Lainez`ek sortu eban Trebiño`ko kon-derria eta 1.194`an Nafarroa`ko VII`n Santxo azkarrak zabalkuntza emon.

1.201`ean, Trebiño Gaztelatarren mendean geratu zan, VII`n Santxo Azkarra (1.194-1.234) Nafarroako erregea,

Gaztela`ko VIII`n Alfonso`gaz (1.155-1.214) itzarmendu zalako Arga-Miranda`ren truke.

1.417`an, Gaztela`ko II`n Juan`ek (1.405-1.454) emongo eutsozan Logroño`ko Foruak eta geroago Leon`go erregetzan agiri-idazle nagusia zan Gomez Manrique de Lara`tar Diego Trebiño`ko kondea izendatu eban.



XIX`n gizaldian, errien banakuntza egin zanean Burgos`ko mendean geratu zan Trebiño Argantzuneko erriarekin batera.

1.942`an erabagi ori barriztu egin zan, nai-ta Trebiño`ko biztanleak %`tik 98`ko kopuruan Araba`ko jaurkintzarekin gura eta ainbat aldiz eskari ori egin Eusko-Legebiltzarraren bidez.

Gaur gagozan gizaldian ez dago eskubiderik, Euskaldun izan eta senditzen diran Trebiño`ko konderrian bizi

diranak alango arbuio, erdeiñu (desprecio) edo ez-ikusi onik, gero esango dodanakaz. Gaztelatarrak, daukien arra !! argi erakusten dabelako.

IZKUNTZA: Trebiño`tarren izkuntza oso beranduarte Euskerea izan zan eta nik esango neuke XIX`n gizaldi erdirarte egin ebela, Gaztela`ko erritarren artean-be XVI`n gizaldian Euskeraz egiten zalako eta geiago, Trebiño`tarrak euren anai Euskaldunakaz inguratuta egon-da Euskalerriko sabel barruan. Gaur, berrezkuratzen dabizena ikastolaren bidez.

Erregezko Jaurkintzak beste gauza-bat dira, erria`ren zentzuetik kanpo ibili ziralako.

Europa guztian Erromatar-Godo`engandik jaurkintzarako artu ebezan nausigai`tasunezko andizki edo aitor- seme aukera orreik, euren artean, Mundu onetan batzagotasunezko asmakizuna elburu zala eta nor-geiagoko edo norkerizko jokuan asi-ta, umien antzeko jolas-toki batera bideratu ebazan.

Nafarroa`ko erreinuan-be bardiña gertatu zan eta Latin ta Euskera`ren bitartean sortu ziran latin-kume baragarri orreri indarra emoten asi ziran, bereztasunezko erri ta izkuntzak ezeztuteko alegiñean ibili ziralako eta gaur-be dabizelako Gaztelatar-menperatzaille oneik.

ARGANTZU ERRIRA: 10`k eta laurenetan eldu giñanean Palazio`z jatetxean egonda gero, errian sartu eta artez, Udaletxera joan giñan argibide billa. An egoan emakumezko arduraduna baiña, txangolarien adierazpena-ko ez eban euki ezelako paper-iragarki ez bide-maparik.

Gure itaunen gora-beran, bera lotsatuta egoala esan euskun bein eta berriz eta urrengo osterabat egiten gendunerako aleginduko zala eukiten, argi-bide edo adierazpeneko paper orreik, joaten ziranai eskeintzeko.

Emakumea, atsegiñez agurtu ondoren erria ikustera joan giñan eta leen ern-arazi edo gogoan eroan nebana, enparantza eta kale guztien izenak Euskeraz eta gaztelera idatzita egon ziralako. Poz aundia artu gendun Trebiño`tarren alegiñak ikusteagaz eta geiago, gazteak Euskeraz berba egiten ebala jakin gendunean.

Eleiz ederra-be badaukie, baiña ez gendun barrutik ikusi, atea giltzatuta egon zalako.

AÑASTRO: Txarto zaindutako errepidetik joanda, 12`etan eldu giñan Añastro`ra eta eleizaren aurrean geratuta, aurrez-aurre euki gendulako, "Añastro`ko Gaztetxea" ikusi gendun idatzita.

Poz aundia artuta, berebilletik beratu gintzazanean, gizon bat ikusi gendun eta beragana joan nintzan itanduten ia eleiza ikusi leiken.

Bera zala giltzaduna esan euskun eta bereala joan zan etxera giltzaren billa atea zabaltzeko.

Beren emazte ta semea etorri ziran eta ama atea zabaltzen ibili zan bitartean Euskeraz berba egin neutson gaztea`ri eta berak be Euskeraz erantzun.

Eleiza, barrutik ikusten ibili giñanean, uste-onean asi giñan berbetan eta beren izen abizenak Agirre Perez Onrraita`tar Julian zirala esan ondoren, Angola`n dagon gotzaiña Onrraita Perez de Agirre`tar Luis Maria eta onen anaia, apaiza danagaz, lengusuak zirala esan euskun.

Argazkiak atara nebazan eta batez-be, arrizko sermoi-alkia`ri, eder-lanean eginda dagoelako.

Bai aldare nagusien erretaula edo aldare-buruari eta korua`ri, au zaintzen ez bada-be, denboragaz jausteko arriskuan dagoelako.

Gauza oneik ikusita, bereala konturatuten da bat, euren jabetasunezko arduraren kanpo direla erriari eutsi edo zaintzeko bear diran diru eta artu bear diran erabagiak. Eta eritzi ortatik konturatu, gaztelatarrak jabetasunezko arduradunak edo menperatzaileak izanda, “neri zer doakit edo zer ardura-tzen daust ?” esaten dabela, Trebiño`ko konderrria maite ez dabelako. Edo eta euren menpean bakarrik daukielako “dirua atarateko ogasun edo ondasun-lez”.

Dana-dala, gazte gitxi ikusi genduzan kaleetatik eta zeozegaitik izango da, erritxoak, etxe ta errepideak aiñ-gitxi zainduta agertzen diranean. Baiña erria, euren jabetasunezko ardurapean ez dagoela ziur nago.

TREBIÑO: Trebiño`ra elduta, Udaletxe`ko txango`zaleen billaketa edo argibidea`ren bulegora joan giñan, ia zertaz atzeman emoten gendun, gure ikus-azterketa

argitsuagoa izan daiten eta an-be bardiñ, ez zalako egon ezer.

Eleizara joan giñan eta berebilla itxi gendun gera-leku alboko etxea`ren orman, dauan zurezko iragarkian irakurri neban: “Manrique de Lara, armarridun-etxea / casa blasonada”, SAN JUAN. Argazkia-be atara neutson.

Eleiza`ren ate, ateartea eta berak emoten dauan itxura, ikusleentzat oso alper, nagi edo baldras agertzen da eta bere ateko albo bietan, gaztelera idatzita agertzen dira: “DE TODA PALABRA OCIOSA DARAN LOS HOMBRES CUENTA RIGUROSA”. Beste aldean “LA



Añastro: Pulpitu arrigarria.

MALDICION DE LA MADRE...., eta ortik aurrera ez enintzan izan gai an esaten ebana irakurteko.

DORDONIZ: 1`1/2`etan eldu giñan Dordoniz`eko eleizaren aurrera eta lenengo erakutsi eustena, eleiz ondoko etxean dagon leio-bat, berak, orain berrogeita amar urte: “Leio ortatik egin bear izan ebalako jauzkada, lagunak ez daiten joan atea giltzagaz itxita euki ebelako, berebil-bus`ak iges egin daiotzen”.

Eleiza-be giltzapetuta egoan eta ez gendun ezer ikusi. Eleiza`k, XV`gizaldiaren amaiera edo XVI`garren gizaldikoak dirala esan eustan Martin`ek, Amerikatik ekarritako urre-gorriagaz eginda dagozelako.

Lurrak ondo landuta egon arren, erria illun-itxuragaz agertzen da eta bizitasun barik. Euskaldunak zeozer

geiago egin bear gaunke gure erriak illuntasun ortatik atarateko.

ALBAINA`n: Karmeldarren usai`koa dan Eleiza`ren aurrean geratu giñan eta au-be giltzatuta egoan lez, zar-saridunen txoko`ra joan giñan zeozer artzen.

Martin`eri esan neutson, gazte gitzi erri onetan ez?

Jakin gura neuke, emengo gazteak zelako iritzia daukien gaztelarrarekin.

LAIÑO`ra: Eldu orduko, areazko-atxarteetan eremutar edo bakarti`arrak eginda dagozan goba`k edo euren etxe-bizitzak ikustera joan giñan.

Goba oneik (asko diranak), VI`n eta VII`n gizaldikoak dira. Euskalerrian Kristautasunaren asieran, asko izan ziralako mundu onen zalekeritik iges eginda, ARIMA`ren bizitzak zuzentasunezko bidetik JAINKOA`ri eskeintze-ko.

Orregaitik, basati eta jainkotar bizitza bidetik, JAINKOA, zilbor biurtu zan ain-bat gizon-emakumeentzat.

Trebiño`ko eremutar edo bakartiarren Goba-geienak, Laiño orduko dauan ibarra`ren albo bietan eginda dagoz. Ezker aldean Santorkaria ogei-Goba daukazenak eta eskomatara eskuz eginda dagozan amaika inguru.

Eremu`tar edo bakartiar onen bizitzak maldaberan asi ziran, Eleiza`ren aztura-bidetik zaletasun aiek, lekaime/lekaide-etxe-arauz bideratu edo eta antolatu egin ebazalako.

Orregaitik XIII`n gizaldian irasi edo ezarri zan VI`n gizaldian egindako Goba baten Gure Peña`ko Andra Maria, Faido eta Lagran`eko erri-bitartean.



Gure Barandiaran`tar Miel`ek, Goba onekaitik esaten eban: Arri-aro (paleolítico) eta Arri-aro barrien (Neolítico) bitartetik (Mesolítico), Bisigodo`en aldi`rarte, eremutar edo bakartiar oneik bizi ziralako.

Euskalerria da geien agertzen dan arkaitzetako etxe`gintza au eta Araba`ko lurraldeetan geien, adibidez Baldegobian: Billanueva, Tobillas, Korro, Pinedo, Kexo eta abar. Eta Trebiño`ko konderrian: Markiñez, Urarte, Laiño eta Albaina`n.

Urruntasunetik atara nebazan argazkiak, Goba inguruetan ur asko egon zalako. Baiña badaukaz argazki oso onak ARANZADI Web orrialdetik ataratakoak eta bertan idaz-lan onetan doazenak.



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO


IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA`K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA`k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatu-koak edo erriak batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER`en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA`ren etxean (Bilbao`ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer`en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

EUSKARAZALEAK



Trebiño: Erriko eleizea

Laiño erri-txikerra da baiño sendotasun aundia erakusten dauana eta askeneko begiraldia berari emonda Armenia`ko Bentaz bide-ostatura joan giñan bazkaltzera.

Bazkal-ostean Urizaarratik La-Bastida`ra joan giñan eta andik Mungia`ra Olazar`tar Martin etxera eroateko eta ni Zornotza`ra

Egun ederra emon gendun Trebiño`ko Euskal-lurralde au Txangolari`zko

azter-zaletasunean eta poztasunez eldu giñan gure etxeetara.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA'N 2008'AN BAGILLA'REN 6'AN



**Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**

Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk`ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

LIBURU OSPETSUAK EUSKERA

ELEIZACO ZAZPI SACRAMENTUBEN ILASIQUIZUNAC

Fr. Bartolome de S. Teresa
PAMPLONA 1819
ARGIAREN EGUTEGIA 1922
TXIRRITAREN TESTAMENTUA 1931
XENPELARREN BERTSUAK 1931

MAKAZAGA (ERRENTERI)

IPUI ONAC (1804) VICENTA MOGUEL

ELEISACO ZAZPI SACRAMENTUBEN
ILASIQUIZUNAC (1819)
FR. BARTOLOME
BRABANTECO GENOVEVAN BILTZA
1885 G. ARRUE

ARGIAREN EGUTEGIA
1922

OTOIZ GAIK (1904) Mendiburu

TXIRRITAREN TESTAMENTUA (1931)
BILINTXEN BERTSUAK (1931)
XENPELARREN BERTXUAK
Makazaga (Errenteri)

Bertso paper zarrak

Los vascos de la Ribera de Navarra,

*en la obra periodística de Diego Pascual Eraso
(Corella, 1898 - Bilbao, 1974)*

JABIER SAINZ PEZONAGA

OARRA

Irakurleren bat nai ba'dau
Aita Santi'ren DVD edo
Umandi'ren gogo-iztegiaren
CD'a, eskatu begi
"Euskerazaleak Alkarte"ra
Colón de Larreategi, 14, 2.a.,
eskoia
48001 Bilbao

edo 94 423 53 22- 94 475 96 63
(Karmele)



BAKIOKO KALETEGIRAKO IZEN BARRIAK

Udalaren eskabidez, bertan agertuko da eskatutako leku barri birentzako izendapen bana eta izen bat aldatutako eskakizun bat. Beinola kaletegi osorako egin genduan proposamenaren bidetik urten barik, leku barri bi orreentzako eta aldakuntzarako artutako izenak Bakioko toponimiaren corpusetik artuak izan dira.

Arrazoi nagusi bi egon dira alan egiteko:

- Leenengoa, izenak eurak errikoak dira, erritarrak leenagoko antxineko aldi baten asmauta, atan be. Alan bada, Bakioko ondare linguistikoaren, erriko euskerearen, erakusgarri garbi-garbiak dira. Bakioko berezko nortasunaren, nortasun euskaldunaren, lekuko. Ganera, berbertako lurren izenak dira izan. Ez dogu bada, asagora joan bear, ezta be, asmakerietan ibili bear lekuentzako izenak aukeratuteko.
- Bigarrena, erriko toponimia da izatez kaleak, plazak, inguru eta eraikin barriak izendatzeko biderik neutroena eta sendoena. Inor mindu (?) ez egiteko biderik garbiena. Gogoratu, osterantzean, esaterako, oraintsu eta oraindikoren be, Euskal Erriko erri eta uri batzuetan pertsona batzuen izenak dirala-eta sortutako matraka politikoak. Kale edo plazetan iminita edo kendu barik egon diralako (batzuk urteetan), erriotako alkateak espainiar epaitegietara agertugino eldu da matrakea. Erru barik (errurik inoz egon bada) epaituak izan eta, azkenean, eurai izen orreek kendu eragin arte. Epailotariko baten anka-sartze baragarri andia eta guzti!

NAZAPE PLAZEA

Plaza ori eginda dagoan lekuan bertan (Solozarre SUR-4) baegozan iru solo, “**Nazape**” izenekoak. Orreetariko solo bat **Arretxeta** aldeetxekoa zan eta beste biak **Ardantzakoak**.

BEUA (Bermeoko Udal Agiritegia)

Mazape (1910)	Ardanza (1/2 N)	Padrón de Fincas Rústicas	1032
Mazape (1910)	Ardanza (1/2 S)	Padrón de Fincas Rústicas	1435
Mazape (1910)	Ardanza (1/2 N)	Declaración de Fincas Rústicas	0866
Masape (1923)	Ardanza (1/2 N)	Declaración de Fincas Rústicas	0404

BAUA (Bakioko Udal Agiritegia)

Masape (1929)	Ardanza (1/2 E)	Padrón de Fincas Rústicas	0048/004
Masape (1929)	Ardanza (1/2 O)	Padrón de Fincas Rústicas	0048/004
Mazape (1944)	Ardanza (1/2 O)	Amillaramiento Rústico	0291/004
Mazape (1944)	Ardanza (1/2 E)	Amillaramiento Rústico	0291/004
Mazape (1953)	Ardanza	Declaraciones Amillaramiento	0099/002
Nasape (1970)	Aricheta	Expediente de obra en río	0632/007

GJE (Gernikako Jaubetza Erregistroa)

Nasape (1944)	Aricheta	finca 0911 – folio 026 – libro 13 - BERMEO
Mazape (1945)	Ardanza (1/2 E)	finca 1.374 - folio 073 – libro 19 - BERMEO
Mazape (1947)	Ardanza (1/2 O)	finca 1.622 - folio 157 – libro 22 – BERMEO

Iru solook bata bestearen atzean egozan, **Bekoerrotara** ura eroaten eban ubidearen ondoan, beeko alderdian, atan be. Izan be, “**NAZA**” berbeak euskeraz “errotako ubide” esan gura dau. Berba ori, gaur egun, ez dago geiago erriko euskeraz bizirik, galdu egin da. Baia, toponimian zelan edo alan fosilizauta lotu jaku, leengo Bakioko euskerearen lekuko. Or dago leku-izen orren baliorik andiena. Bakioko euskeraz agertu ezeze, Xiberoko euskeraz be erabilten da berba ori.

SOLOZAR OINBIDEA

Solozar soloa egin dan oinbidetik (Solozarre SUR-4) ur egoan. Solo ori **Bekoerrota** etxekoa zan. Zati bat saldu egin jakon **Arrien** jaunari 1905. urtean, gero, bertan Arrien etxea egiteko. Bear bada, **Ardantzako Ogietasolo/Obi-**

etasolo izenekoa parajeago egongo zan, baia urigune barri orreri “Solozarre” izena imini jako, batetik, eta, bestetik, **Ogietasolo/Obietasolo** izen bien artean zein dan egokiena oraindinokarren ez dago argi, ikerketeagaz amaitu artean ez, beintzat.

Erriko kaleategia sortuteko jarraitu ziran berbeta erispideetan oinarrituta, Solozar idatzirako erabiliko da, “Solozarre” agoz esaten bada be.

BAUA

Solozar (1910)	Becoerrotta	Padrón Contribución Rústica	0291/002
Solozar (1920)	Becoerrotta	Padrón Contribución Rústica	0284/010
Solozar (1924)	Becoerrotta	Altas-Bajas Padrón Rústico	0001/002
Solozar (1944)	Becoerrotta	Amillaramiento Rústico	0291/004
Solozarra (1953)	Becoerrotta	Declaraciones Amillaramiento	0099/002

GJE

Solozarre (1943)	Becoerrotta	finca 067 – folio 216 – libro 1 – BAKIO
Solozarre (1945)	Becoerrotta (Arrien)	finca 128 – folio 164 – libro 2 – BAKIO

ORTUETA APARKALEKUA EDO ERRENTERIAKO APARKALEKUA

Eskatuta egon ez bada be, beste proposamen bat egin bear deusuegu. Izan be, leengo “Julian” tabernearen ondoko aparkalekuari “IRUBIDE” izena imini jako. Bear bada, alboko dendeak, gozotegiak, izen ori daukalako eta izen orrek eraginda. Izen ori, leenengoz dendeari imini jakona ez da urte asko. Zoritxarrez, aparkaleku orrentzako, nire eritxiz, ez da aukeratu izen egokia. Batetik, istoriak dinoskun lez, bide bi baino ez ziran egin: **Basigokoa**, leenengo, gero berau areatragino luzatu zana, eta, bigarren, **San Pelaiokoa**. Bide bi, ez iru. Ganera, etxe orreri ez jakon emon ezelango izenik, oiturearen aurka.

Etxe ori Jeronimo Garai Goiriena jaunak egin eban 1953. urtean. Orduko **Urkitzaurrealde** auzoko 43. zenbakidun etxea izan zan. Orretarako, aren lur saila baten zati baten ganean eregin eban etxea. Lur saila orren barruan lau soloren zati bana egozan: **Txapasolo**, **Sallaluze**, **Solonagosi** eta **Zubiondo** izenekoak. Esan bear da, lur saila orren beste zati bat saldu eutsola Jeronimok 1947. urtean Florencio Uriarte Unibaso jaunari. Beronek erositako lur sailan etxe bat egin eban 1951. urtean, **Zubiondo** izenekoak. Etxe biak **Basigoko** bide nagusiaren ondo-ondoan eginda egozan, eta badagoz gaur egun be. Lau solodun lur saila orrek beste zati bat baukan etxe bion atzeko alderdian.

Lur saila oso a, iparraldeko alderdian, **Ortuteta** izeneko soloari eustola egoan. Alan bada, **Ortueta** izeneko solo ori, egoaldean, **Txapasolo**, **Sallaluze**, **Solonagosi** eta **Zubiondo** soloeri eutsela egoan, sartaldean Marisolo izenekoari (bertan Urresti jaunak 1967. urtean etxebizitza askoko eraikina egin eban), sortaldean **Basigoko** bide nagusiari, eta iparraldean, **Aldapa**, **Etxeaurrea** eta **Areatasolo** izeneko soloak egiten eben lur saileari. Aitatutako aparkalekua, bada, Ortueta izeneko soloaren gane-ganean dago eginda.

Aitatutako **Txapasolo**, **Sallaluze**, **Solonagosi**, **Zubiondo**, **Ortueta**, **Marisolo**, **Aldapa**, **Etxeaurrea** eta **Areatasolo** soloak, beste askogaz batera, lur saila andi bat egiten eben, **Etxeondo/Etxeondoa** izenekoak. Dan-danak **Erreneria** etxeokak. Etxe orretakoak izan ziran inguru guzti a eta aren ondoko basoak be. Benetan, jaubetza andia **Erreneria** etxeokoa zana. Orrek etxe aren orduko garrantzia eta indarra erakusten deuskuz. Erriko istoriaren zati ori obeto jagon leiteke etxe aren indarrari bear dan moduko omenaldia egiten bajako, bertako aparkalekuaren izena era egokian aukerata (aldatuta), atan be. Eta zer egokiagorik orretarako lurrari berari jagokon izena imintea baino?

BAUA

Ortueta (1910)	Renteria	Padrón Contribución Rústica	0291/002
Ortueta (1920)	Renteria	Padrón Contribución Rústica	0284/010
Ortueta (1924)	Renteria	Altas-Bajas Padrón Rústico	0001/002
Ortueta (1944)	Renteria	Amillaramiento Rústico	0291/004
Ortueta (1953)	Renteria	Declaraciones Amillaramiento	0099/002

GJE

Ortueta (1944)	Renteria	finca 111 – folio 100 – libro 2 – BAKIO
Ortueta (1944)	Renteria	finca 112 – folio 105 – libro 2 – BAKIO

Iniaki MARTIARTU
BAKIO (2008ko garagarrilean)

BIZKAIAREN UGARTEAK

Bizkaitarrok gai oneri buruz aitzuta bizi gara, baiña, egia da, Bizkaia k ugarateak edo izaroak ba-daukaz. Ez doguz ezagutzen, ez dogu euren zabalkundea egiten ibaiakaz, ondartzakaz eta kaiakaz batera, baiña or dagoz.

Gure ugarteen billa ibillita, oneixek aurkitu doguz: San Nikolas, Izaro (au da aundiena), Txatxarramendi, Urbina, Aketxe, Gaztelugatxe, Billano, San Kristobal, Uribitare eta Sokorro. Guztiz amar ugarate dira, batzuk oraindiño agirian dagoz eta beste batzuk betiko ezkutatu jakuz, bakoitxaren azterketea egitean esango dogun lez.

Ugarate orreitan burruka gogorak be izan dira, itxas-lapurraz edo Bizkai ko Jaunaren jabetza zain-tzeko eta abar. Izaro k ba-dauko Jibraltar en antza be, iñoz inglesen menpean izan dalako.

IZARO

Auxe da gure ugarate nagusia. Izen ori artu dau "Izaro filmes" baltzuak eta orregaitik da Ugarate au ezaguna ludi osoan.

Zelakoa da Izaro? Ezer bizirik ete dago an? Edo landararik?

Mundaka ko errekea itxasoratzen dan lekuan dago. Laga ondartzatik 1,3 km ra eta Mundaka tik k. bira.

Bere luzerea 650 neurki da eta itxas-ertza 117 neurki.

Aitz aundia da eta ego-sortaldetik latza. Emen dago landararik geien, batez txakurrazak eta untxiak jaten dabezan azelgak. Untxi oneik dira bizidun bakarrak.

Lau leiza edo koba dagoz eta 1960n. urtean aztertutak izan dira. Lenengoak 3 neurkiko zabalerea dauko, 0,60 neurkiko goierea eta 7 neurkiko sakonerea. Bigarrena iparraldera dago, bidea eta igoerea da. Andik 100 neurkira dago irugarrena, itxas-ertzean. Txikia da. Lau garrena be txikia da eta sortaldean dago, irugarrenetik 20 neurkira.

Itxura baten ez dauko garrantzirik, baiña XVIII gizaldian Bermeo ta Mundaka ren artean eztabaidatu zan bere jabetza. Azkenean joko batera sartu ziran eta estropadea egin eben nor lenago bakoitxa bere erritik ara eldu, Elantxobe epailari zala. Bermeo tarrak

irabazi eben, lenengo eldu ziralako (1719. Urtean) eta urtero uztaillaren 22n. egunean, Santa Maria Magdalena egunean, ospatzen dabe ori. Bermeo ko alkateak teilla bat botaten dau ugartetik itxasora eta auxe esaten dau: "Onaiño eltzen dira Bermeo ren ituzurak".

Toki arduragarria da. Errege Katolikuak "Caput Bizkaiaie" edo Bizkaiburu izentatu eban Bermeo rentzat. Bilbao baiño lenago izan zan Bermeo, ba, Bizkai ko buru edo "Kapital"

Batzuk Bermeo zala diño e antxiñakoak Flabriobriga esaten eutsoen erria.

Zer-ikusia dauko, gaiñera, ortxe bizi izan ziralako lekaide frantziskotarrak.

Or inguruan ibilli dira korsario edo itxas-lapurraz sarritan eta asko. Orrek egin eban larria an bizi ziran lekaideentzak toki ori, gaiñera bertako giroa be oso gogorra zan. 1422n. urtean sute aundi bat izan zan. Bost urte gero go aide nagusien burruka izan zan berton eta Fortun Santxez de Olabarieta k ekin eban Juan Ortiz de Areskurrinaga ren aurka.

1422n. urte orretan Diego Lopez de Zurinaga Kalagurri ko gotzaiñak sortu eban lekaide-etxe ori Arteaga tar Martin aitagaz.

Errege ta jaun ospetsu asko joaten ziran bertara. IV Enrike 1457n. urtean, Fernando Katolikua 1483n. urtean eta Isabel onen emaztea. Onk agindu eban eta dirua emon malladia konpontzeko.

1443n. urtean frantziskotarrak etxe asko eukezan Bizkaia n. II Felipe erregeak eta urrengoak asko lagundu eutsoen Izaro ko lekaide-etxeari eta onen emazteak urtero 200 meza emoteko laguntza emon eban.

1595n. urtean Drake itxas-lapurra urreratu zan amalau itxas-ontzigaz eta Izaro beragandu eban. Dana apurtu eban, eleizea eta irudiak be bai, eta lekaideak jo egin ebazan. Azkenean sua emon eutson danari, baiña lekaideak balioko gauzak eta jazkiak leiza baten gorde ebezan.

1644n. urtean lekaide guztiak bizkaiatarrak ziran. 1694n. urtean Mundaka n etxea artu nai izan eben baiña ez eben lortu eta 1715 n ean itzi eben Izaro eta Foru ra joan ziran lekaidetxea sortzen. 1719n. urtean urten eben ugartetik, 300 urte igaro-ondoren.



*Txatxarramendi
ugarte.*

GAZTELUGATXE

Ugartea bagerik erdi-ugartea edo peninsula da gaur. Barruan baseleiza bat dago, gotor-leku izana.

1053n. urtean Tota´k eta Eneko Lopez´ek Zianno eritxon Pinna´ko Donibane´ko lekaideari emon eutsoen: San Juan del Castillo izena emoten dautsoe (izatez Castillo difícil esan gura dau izen onek). Or dagon etxea batzutan eleizea izan da eta beste batzutan gaztelua.

XI ta XII gizaldietako illobiak aurkitu dira barruan.

Delmas´ek or tenplarioak bizi izan zirala diño, baiña Bizkaia´n ez da iñoz izan tenplariorik.

48 neurkiko goierea dauka eleizeak eta begi biko zubitxu batek alkartzen dau lur-zabalagaz.

Mailladiak neurki bateko zabalerea dauka eta irureun mailla dirala esan izan da. Iñoz bai urteak

egunetan daukon beste dirala maillak be, baiña mailla asko galdu egin dira , bitarteak izteko, eta gaur 212 mailla dira.

Goian ikuspegi arrigarria dago.

AKETXE

Gaztelugatxe ta Matxixako´ren bitartean dago eta Izaro lez Bermeo´rena da. Atxa baiño ez da eta bedarra baiño beste bizirik ez dago. Batzuk an untxiak dagozela diño.

TXATXARRAMENDI

Ugarte au Mundaka-ondoan dago. Txikia da baiña pozgarria.

Zugaztia da gaur eta 1987n. urtean Arrantzaleen Ikastegia egin dabe berton,

BIZKAIA

Zubi bi izan dauz, bata ostatu aundi bat egiteko eta bestea gaur dagoana, 1941n. urtean egiña da.

1896n. urtean egin zan Ostatu edo Otel ederra. 1000 notiñentzat areto bat be ba-eukan eta balneario be ba-zan. 1947n. urtean itxi eben.

Leiza sakon bi dagoz Txatxarramendi´n. Lenago karea egiten ei zan.

Arantzaleen ikastegia dago gaur barruan, ardura-dun Foru-Aldundia dala.

Be-barrua dauka lanak egiteko eta itzaldietarako areto bat. Etxe mailla bi gainean eta or gela asko.

SAN NIKOLAS UGARTEA

Lekeitio´ko itxasoan dago. Txkiia da baiña asko joaten dira ara. Goierarik aundiena 47 neurkiko da.

Orra eroan ebezan izurri edo epidemi-aldian gaiso-az il ziranak, 1578n. urtean.

1617n. urtean frantziskotarraiki eskiñi eutsoen Lekeitio´ko Udalak eta egin eben euren lekaide-etxea, baiña urte gitxi barru, itzi egin bear izan eben.

UGARTE TXIKIAK

Bizkaia´ren itxas-ertza 80 km´koa da eta ba-dagoz gaur ugarte diran atx batzuk, lenago lurragaz bat ziranak. Batzuk itxasberan baiño ez dira ikusten. Ez dauke landarik.

Armintza´n, lurretik lau millara Barrukoarri deritxona dago, milla bat luze dana. Antzekoa da Kan-

pokoarri, milla bat iparrerago. Ego-sartaldean dago Aitxebatxinarri (Piedra del P. Batxi edo Bautista), Plentzia´rantza. Beste olako arri batzuk be ba-dagoz, izenbakoak, eta milla ta erdi luze daukenak.

Iru milla iparralderako dago Billunzorrotze eta beste milla batera San Martin ugarte, milla bat luze dana.

Arrizabale ugarteak 250 neurkiko luzerea dauka eta 80 n. zabal.

Ezaguna dabe arrantzaleak Arrizabale: 1500 neurki luze dana.

Arrianajek: Monolito bi dira, jemelo-antzekoak.

Somorrostro´n dago Sokorro ugartetxua .

UGARTE GALDU BI

San Kristobal ugartetxua Bilbao´gaz bat eginda egoan baiña galdu egin da. 1983n. urteko uriola aundiak ondatu eban La Peña auzoan. Nerbion ibaiak bidea aldatu eban eta or galdu da ugartetxu au. Unamuno´k aitatu eban, Izen ori bertan egoan baseleiza batek emona dau. Ez da ezer agertzen. 1883n. urtean udalak erosi nai izan eban ugarte, 87 500 pezetagaitik. Edozelan be 1894n. urtean uriarena zan.

Uribitarte ugarte eskuz egiña zan, artifiziala, eta Nerbion ibaiaren barruan egoan, Kanpo Bolantin´en aurrez aurre. XVII gizaldian egin zan eta "Canal de Plata" izena ezarri eutsoen eta lurrari "La Glorieta". 1869n. urtean ezkutatu zan ugarte au.

OLAZAR'tar Martine'k

EUSKEREA

Izkuntza zoragarria agertu da Euskadin sormen arrigarriz, jakituria dauka beraren izatean beraren berariz.

Euzkotar gizadiak zentzunez dau bizia elkarren artean, buru-biotz jatorrak lorarik ederrena daroe miñean.

Gogoz agurtzen dot nire asaben itza biotzez ondurik, emon da zabal zazu ederraren frutua lurra apaindurik.



IBAIONDO

Ura, zugatz, zelaia, inguru eder bat zan mendi barrenean, txoriak, egaz, aidez guztiak egazlari mendi barrenean.

Ibaia ta mendia bitzuak, aurrez aurre, zoramen aundian, urtegia dotore zidarrezko egoan ondartzaz ertzian.

Arrain zuriak datoz, pozik aundienagaz uger gozoetan, zein geiagoka dabiltz arin aringa biziz ibai ederretan.

PAULIN

ABERTZALETASUNA



Ondo dakigu España'k Lege Zarrak kendu euskuzala eta gure erria ondatuta geratu zala.

Arrezkero erriak ez eban ikusten etorkizunik, apurka, apurka nortasuna galtzea baiño.

Baiña sasoi bakoitzean agertzen dira gizon egokiak eta euskaldunentzat be agertu zan olako gizon arrigarri bat.

Ikasi eban gure edestia eta ikusi be bai foruen bideak nondit nora geroiazan. Luis bere anaiagaz luzaro berba egin ondoren, Sabin Arana deritxon gizon arrigarri onek lortu eban esaldi egoki bat: "Euskaldunen Aberria Euzkadi da".

Lan ikaragarria egin eban espetxean eta kanpoan, Larrazabal'eko itzaldiagaz asita, burubide argi orreik zabaltzen: Aldizkariak, itzaldiak, ekintzak, alderdi politiku barri bat...

Eta erdi-ilda egoan abertzaletasunak bizitasun barria artu eban Sabin'en bizitzan eta askoz geiago bere ondoren etorri zan Jose Antonio Agirre'ren aldian. Ainbeste batzar, itzaldi eta zabalkunde egin ondoren, azkenean lortu zan, guda asi eta laster, geure Araudia, baiña Franco'k bere guda ikaragarriagaz dana zapuztu eban.

Diktadorea il zanean eta demokrazia sortzen asi, barriro agertu zan Araudiaren egarria eta lortu be bai.

Gaur Eusko-Jaurlaritza daukagu. Bere utsuneak dauz, esaterako Iparraldea ta Nafarroa ez dirala or sartzen, baiña euskaldunak ekintzaille diardue euren elburuak lortzen. Elburu nagusia "Zazpiak bat" egin eta laterri bat osotzea litzake, askatasun osoa.

OLAZAR'tar Martin'ek.

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

BIZKAIA ERDIAROAN

Erdiario luzean Euskalerrria'k edesti larria ta sendoa bizi izan eban eta Euskalerrriaren barruan Bizkaia'k.

Asierako gizaldietan iparraldean frankoen aurka jokatu eban eta unerik ospetsuena Orreaga'n Karlos Aundiaren gudarostea zapuztu ebana izan zan.

Egoldean alde bitatik izan ebazan arerioak. Batetik bizigotak beti euren "domuit vascones" gogoan ebela eta Toledo'ko Batzar Nagusiak aurrez-aurre egozala. Euskaldunak ez ziran batzar orreitara joaten, Iruña'ko gotzaiña be ez euskalduen menpean egoanean.

Ez zan euskaldunen gogoko gauzea arerik Eleizeagaz ain alkartuta ikustea, baiña, ainbeste burrukaldiren ondoren, bizigotak jausi ziranean, euren gudarostea, Errodrigo buru zala, makalduta joan zan Andaluzia-aldera, euskaldunak azkeneko burrukaldian makaldu ebelako.

Beste alde batetik Asturias-aldeko arerioak edo "astures" egozan. Oneikaz ain txarto be ez eben urten. Euskaldun bat baiño geiago izan ziran erregiñak euren artean, Balpuesta alkartze-lekua zala.

III Alfontso'k bere kronika'n, I Alfontso aitatzan dauanean, agertzen da lenengoz "Bizkaia" izena, lurralde au bere erreñukoa zala esateko. Asturiarrak Bizkaia'n barruraino sartu ziran, lagun lez geiago arerio lez baiño. Esaterako Fruniz'en dago Asturitza izeneko etxe bat, Fortunio'ren torre-etxearen ondoan. Antza, Bizkaia'n biztanle gitxi egoalako etorri ziran.

XI, XII eta XIII gizaldiak Euskalerrria'rentzat aurrerapen aundiakoak izan ziran, ekonomian naiz edestian naiz jakiturian, baiña XIII gizaldia da ardatza. Uri bilduak (billak) eta Orduña Uria sortu ziran eta Oleak errietan zabaldu, gero Europa osora burdiña saltzeko eta Bizkaia jauneri biurtu zan. Egia da, gauza onein asierea lenagokoa dala baiña sasoi onetan osotu zan Bizkaia Enkarterria ta Durango-aldea beraganduta.

Jaunak eskubide batzuk eukazan lurraldeen jabetasunean, erri-zaintzan, diru-batzean, gudaketan eta legegintzan, baiña ondo sartzan jako bere barrura dana dala erriarena eta erriarentzat.

Oleak asko ugaritu eta salerosketa be asko zabaldu zan, uri bilduak bide ziralta eta orretarako Gaztelerako bide barriak egin ziran, Lanestosa'tik, Orduñatik eta Areta-Orozko'tik. Salerosle ospetsuak ziran burdiña saltzeko, batez be, Begoña'ko Diego, Durango'ko Pedro Martinez, Usansolo'ko Pedro Ortiz eta Orduña'ko Migel. Sebilla'tik Baltiko itxasora zabaltzen zan salerosketa ori.

Baiña uri bildu edo billa orreik kaltegarri izan jakuzan, Gaztela'ko erregea Euskalerrria agintari lez sartzeko bidea ziralako. Oneik España'ko legepean egozan eta ez Gernika'ko Batzarren eskuetan. Geroago sartu ziran batzar onetara gorabeera aundiak izan ondoren.

Erdi aroko jakintzaren ezaugarri lez iru erri agertu bear doguz: Araba'ko Iruña Beleia, oraintxe diardue emen gauza arrigarriak aurkitzen, Logroño'ko Done-miliane gure lenengo berba idatziak agertu dauskuzana eta Balpuesta'ko Gotzaindegia, Bizkaia'ren zati bat, Nerbioi ibaiaren ezker-aldea, bere ardurapean eukala, emen be oraintxe diardue billaketak egiten.

OLAZAR'tar Martin'ek

ERDI AROKO JANTZIAK EUSKALERRIAN





Mutillena



Neskatillena

EUSKALDUN BARRIENTZAT

ZAZPI ERRUAK



SUDOKU

	4	8		2	1		6	
7		6			9			5
			4				1	3
6	3			5		9		
9			6		2			8
		7		1			4	6
1	7				8			
2			1			3		7
	6		7	3		2	8	

1	8	2	5	3	7	6	9	4
2	8	3	4	6	5	1	8	2
3	9	7	6	3	2	9	7	1
4	6	5	8	6	5	4	8	1
5	8	2	7	9	1	3	5	4
6	9	5	4	6	7	2	1	3
7	6	3	1	8	5	4	9	7
8	9	7	2	4	6	7	2	1
9	5	9	2	4	6	7	8	1
3	4	8	5	2	1	7	6	9

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1,20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²